

07/03/28 - INFORMATZEN 6. Alea

“HAURRESKOLAK” PARTZUERGOAREN EGUTEGIA **HEZKUNTZA SAILAREN “PARTXEOA”**

Gaur egun Partzuergoak haur eskoletarako duen egutegiaren kudeaketak arazo oso larriak dakartza (ordezkapenak behar bezala betetzeko zailtasunak eta langileen txandakako lau opor egunak direla eta, arazo hori areagotu egiten da). Aste Santua gainean dugularik, oraindik ere Partzuergoko haurreskoletan hainbat eta hainbat kontu erabaki gabe daude, eta egoera kaotikoak ari dira sortzen: ez dakigu zenbat hezitzaile izango diren, eta zenbatek hartuko dituzten jai egunak; ez dakigu ordezekoak bidaliko diren eta zein baldintzetan; ez dakigu tokian tokiko neurriak hartuko direla esaten dutenean, zehazki zertaz ari diren...

LABek hasera haseratik ohartarazi zuen egutegi “malgu” honek ondorio oso larriak izango zituela. Bereziki:

- 1.- Haurrak inolako irizpide pedagogikorik eta planifikaziorik gabe erabiltzen ari direlako. Haur Eskolak helburu hezitzaileak ditu, eta horretarako planifikazio serioa behar du. Ezin dugu opor garaietako zerbitzua inprobisatzen eta partxeatzen jardun.
- 2.- Gurasoek ikasturte haseratik garbi izan behar dutelako zein zerbitzu jasoko duten eta zein egutegi izango duen haur eskolak.
- 3.- Egutegi honek hezitzaileen eskubideak urratzen dituelako eta lan baldintzak kaltetzen dituelako. Batetik, haur eskolako langileak eskubidea duelako bere lan egutegia hasieratik ezagutzeko, ezin delako azken momentuan erabaki lan edo jai izango duen, zenbat haurren ardura izango duen, zein ordutegi izango duen... Bestetik, ordezkapena egitera datorren langilea egoera prekarioan aurkitzen delako, baldintza eskasetako ordezkapenak egiten (haurrak ezagutu gabe, opor garaian, oso egun gutxitarako...).
- 4.- Kudeaketa arazo larriak eragiten dizkie kudeaketako langileei (zailtasunak ordezekoak aurkitu eta kontratatzeko...).

LABek hasera haseratik garbi izan du haur eskolek gurasoen bizitza familiarra eta lanbizitza uztartzen lagundu behar duela. Eskubide hori, gainera, haur eskoletako langileen eskubideekin bateragarriak dira. Eta hori guztia, haurarentzat egokiena dena bilatuz. Horregatik, LABek ez du inolaz ere onartuko baldintza hauetan hezitzaileengan ezartzea haur eskola irekita izan eta ongi funtzionatzearen ardura, ardura Haurreskolak Partzuergoarena eta Hezkuntza Sailarena baita, eta haiei baitagokie irtenbide egokia ematea auzi honi.

Partzuergoak enpresak proposatzen dizkigun tokian tokiko neurri bereziek ez diote arazoari irtenbide osoa eta garbia ematen, uneko arazoari ihes egiteko neurriak baino ez dira, azken momentuan hartuko direnak, planifikatu eta antolatu gabe, haurrak aintzakotzat hartu gabe, langileen eskubideak urratuz... Izan ere, LABek garbi du arazo honek konponbide bakarra duela: tokian tokiko jai eguna errespetatuz, urte osoko egutegi zehatz eta artikulatua haur eskola eta langile guztientzat.